

EHUko errektoretzak agiri bat egin zuen publiko aurreko astean. Bertan, alde batetik, adierazpen askatasunaren eta balio demokratikoen aldarrikapena egiten da eta, beste alde batetik, ikasle talde txikiak unibertsitateko elkarbizitza hausten ari direlako mamua zabaltzen da. Agiria unibertsitateko errektoretzak, errektoreordetzak, dekanoeak eta, oro har, EHUko irakasleek sinatu dute, bai eta gutxiengo ikasle batzuek ere.

Dena den, agiri hori unibertsitateko testuinguruan kokatzen baldin badugu, errektoretzaren interes korporatiboen aldeko mugimendua dela ikus dezakegu, eta unibertsitateko ikasle zein langileon aurkako eraso bezala ulertzen dugu. Izan ere, kontuan eduki behar dugu EHU unibertsitate eredu poliziala gailentzen ari dela eta errektoretza paper aktiboa betetzen ari dela prozesu horretan. Horren adibide dira errektoretzak aurten behin eta berriro egindakoak: propaganda egiteko eskubidea erasotzea, ikasle espazio propioak ixtea, kontrol sozialean sakonduz segurtasun enpresa pribatuan eta kameretan inbertitzea, politika egiteagatik ikasle ugariri espedienteak irekitzea edota poliziari unibertsitateko ateak irekitzea.

Horren haritik, Gasteizen antolaturiko Herri Unibertsitateko gertakariak ere aipatu behar dira. Izan ere, ikasle onetsamendu kritikoa hedatzeko ekimen horren aurrean, errektoretzak 50 ertzain baino gehiago unibertsitate barrura bidali zituen bertan gaua pasatu behar zuten ikasleak kolpatzera eta desalojatzera. Hemen ere, errektoretzak dialogoari muzin egin zion, aterabide poliziala lehenetsi zuen eta, ondoren, ez zuen inolako adierazpen publikorik egin ez eta inolako erantzukizunik bere egin ere.

Gauzak horrela, agiri honen bitartez autoritarismoaren gorakadan errektoretzak duen ardura eta erantzukizuna bere gainetik kendu nahi du, balio demokratikoen diskurtso oportunistaren bitartez bere aurpegia garbituz. Horrekin batera, unibertsitateko elkarbizitza suntsitzen ari den ikasle talde txikien mamua sortu du (mamua sortzea eskuin muturraren ohiko jokabidea izan ohi dena), errektoretza bera biktima bezala agertuz (bera denean autoritarismoaren erantzule nagusia). Gainera, bere izenean hitz egin beharrean, sinadura kanpaina bat ireki du, sinatzaileen gainean jarriz errektoretzaren erabakien eta ekintzen ardura. Azkenik, horrelako agiriekin errektoretzak argi utzi du zein den bere borondatea: autokritika egin, bere ardura onartu eta ikasleoi entzun beharrean, orain arte bezala unibertsitate eredu poliziala indartuz jarraituko du, unibertsitateko ikasle onetsamenduaren interesen aurka.

Amaitzeko, ez da harrizkoa errektoretzaren agiria pasa den astean publiko egin izana. Izan ere, egun batzuk lehenago jakin genuen EHUk Israelgo estatu sionistarekin kolaborazioan zibersegurtasuneko katedra sortuko duela eta, horrek sor diezaiokeen irudi txarraren aurrean, errektoretzak bere aurpegia garbitu nahi izan du. Beraz, agiri honetan esandakoak baliorik gabeko hitz hutsak baino ez dira, Israelgo estatu sionistaren genozidioa salatu eta horren aurrean jarrera aktiboa eduki ordez, EHUko errektoretzak Israelgo estatuarekin akordioak egitea erabaki baitu. Gainera, kasu honetan ere, errektoretzaren jokabide ez demokratikoa agerian gelditu da; izan ere, klaustroko 128 kide Israelekin kolaboratzearen aurka agertu baziren ere, errektoreak bozketak baliogabetu zituen oposizioa bertan behera uzteko helburuarekin. Gogor salatu nahi dugu akordio hau eta bertan behera uztea exijitzen dugu.

Behin hori guztia esan ondoren, argi adierazi nahi dugu kezka bizi dugula EHU hartzen ari den norabidea. Izan ere, unibertsitatean autoritarismoa eta eredu poliziala areagotzeaz gain, ikas zein lan baldintzak gero eta prekarioagoak dira bertan. Enpresen eta EHUren arteko lankidetzaren handitzeak hauen interesak lehenestea ekarri du eta, merkantilizazioaren eskutik, unibertsitateko kide onetsamenduko egoera asko okertu da bertan: ordezko irakasleen soldatak oso baxuak dira, garbitzaileek baldintza kaxkarretan jarraitzen dute lanean, gradu zein masterren garestitzea eta gastuei aurre egiteko zailtasun ekonomiko gero eta handiagoak dira, eta abar luze bat. Beti bezala, ikasleak eta langile sektoreak gara galtzen ateratzen ari garenak.

Amaitzeko, unibertsitateak askatasun politikoz jarduteko eta onetsamendu kritikoa sustatzeko espazioak izan behar duela adierazi nahi dugu, eta inola ere ez ikasle onetsamendu inibiziak eta ekimenak zapaltzeko espazio autoritarioa. **Esandako guztiaren bidetik, sinadura biltza abiaraziko dugu EHU, ondorengo aldarrikapenak exijitzeko: batetik, polizia unibertsitate ez sartzeko eta eskubide politikoak bermatzeko; hala nola biltzeko edo propaganda egiteko eskubidea; bestetik, Israelekin duen harreman oro etetea.**

Dei egiten diegu exijentzia hauekin bat datozen EHUko ikasle, irakasle, ikerlari eta langile sektore guztiei aldarrikapen hauek hedatzera eta adierazpen hau sinatzera.

Unibertsitate eredu polizialari ez!  
EHUko ikasleak

Nik \_\_\_\_\_-k \_\_\_\_\_ NAN zenbakiarekin eta 2024/\_\_\_/\_\_\_-n  
bat egiten dut irakurketa honekin.

Sinadura: